



Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 36. zenb. 1997ko ekaina. 100 pzta.



Urola ibaia aztertuz



**Joanito
Dorronsoró,
bertsozale
amorratua**

Oikiako eskolaren martxa



**3. urteurrena ospatzeko
opari eta guzti**





FUTBOL TXAPELKETA

1979ko apirilaren 21ean Egurkoko zelaietan jokaturako finalen ondoren irribarretsu ageri dira Ikastolako 1. eta 4. maila bitarteko mutikoak, Maixu Iñakiren aurrean. **ZUTIK**, ezkerretik eskubira: Juan Kruz Zubia, Joxe Manuel Eizagirre, Aitor Aizpitarte, Mikel Gorriti, Jon Zinkunegi, Jon Ibarra, Andoni Aizpurua, Peio Carballo, Aitor Eizmendi, Joxe Enrike Manterola, Xabier Urbieta, Aitor Unanue, Iñigo Berastegi, Ander Intxaurren, Mikel Garate eta Imanol Manterola. **MAKURTUTA**: Iker Urain, Dani Carballo, Karlos del Pilar, Garikoitz Zubeldia, Andoni Esteibar, Iñaki Mendizabal, Jose Luis Soria, Ander Unanue, Jokin Urkidi, Xabier Irureta eta Jonhatan Txintxilla.



fundazioa
fundación
kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzako Kultura Sailaren
dirulaguntza jaso du



ZUMAIAKOUDALAK
lagundutako aldizkaria



**BALEIKE
HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea

**ZUMAIAKO
GAZTE
BATZORDEA**

lantaldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea,

Natur Taldea, Ladis Rivas,

Dani Carballo,

Bertso Eskola, Romu Artetxe,

Miriam Romatet, Ainara

eta konpainia, Amaia Benito, Jon

Manzisor, Igone eta Nerea, Josu

eta Arantxa, Asier eta Fran,

Ainhoa Iturbe, Mattin, e.a.

publizitatea

861056 tf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Kultur agenda
Festa eta kultur
ekintzak
noiznahi

...12 eta 25. orr.

Musikaz blai

**Baratza
Bass Band**

.... 28. or.



Ze berri?
**Protesta ekintza
uretan sartuta**

...6. or.

Jan edo ez jan

(kalean)

- Honbre Maritxu aspaldiko, zer moduz?
- (Maritxu) Ba... ondo esan beharko.
- Benga goazen zerbait jatera, gonbidatzen zaitut.
- (M) Ez, eskerrik asko baina dietan nago. Badakizu uda dator eta...
- Eta?
- (M) Ba hori, kilo batzuk bota behar ditut, «presentable» xamar egon nadin.
- «Cuerpos Danone» eta guzti hori. Ze kristo, badakizu!
- Ah, «Cuerpos Danone». Eta zertarako, zergatik orain?
- (M) Jode, inozentea ematen dek. Hondartzan lasai, gustora egoteko, gorputz polit bat erakusteko.
- Kontxo, kontxo, eta hau uda datorrelako egiten dezu bakarrik?
- (M) Honbre... badakizu zenbat kostatzen eta sufritzen den gorputz eder bat luzitu ahal izateko.
- Bale, bale, ez moskeatu horregatik! Beno, ni txuleta eder bat jatera noa ardo on batekin, gero legatz puxketa majo bat, eta azkenean, whisky tarta goxo bat helauarekin. Ai ze ondo!
- (M) Hi, alde nire bistatik, kabroia!!!



**Igor
Uranga**



**PREMIAZKO
TELEFONOAK:**

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia.....	86 02 48
Alkoholikoen senideak.....	47 54 03	Sexu-informazioa.....	32 04 44


EGI, ESNATU

Badirudi EGikoek non bizi diren ere ez dakitela, edota beraien sudurraz harantzago ez dutela ezer ikusten.

Inoiz ez dizuegu gazteak ez zaretenik esan, nahiz eta ez zareten hain talde gaztea; baina, zalantzarik gabe, behin eta berriro esango dizuegu ez zaretela abertzaleak, espainolista baizik.

Aspaldi egin zenuten Estatutoaren aldeko apustua, eta horretarako bai PSOEkoiei, eta bai orain PPKoiei, ipurdiko ileak banan-banan miatzatu behar izan diezue nahiz eta euskaldun guztion etorkizuna saldu. Baina noski, zuek beti bide demokratiko eta baketsua eramanez, beti ere estatu espainoleko nahiz frantseseko indar okupatzaileekin kolaboratuz (tartean dago gerra zikina), Euskal Herriko intsumitu eta okupak kartzelaratu, gazte abertzale eta iraultzaileak jipoituz, adierazpen askatasunaren praktika zapalduz, Euskal Herria hiru zatitan banatzea onartuz (hobe zenukete «Gora Euskadi Askatuta!» oihukatu beharrean «Gora Euskal Autonomi Elkarte askatuta» oihukatzea), presoen sakabanaketa urteetan zehar onartuz, Abiadura Handiko Trenak dakarren desastre ekologikoa onartuz, Zumaia bezalako Euskal Herriko kostaldea deuseztuz eta irrazionalki turistiko bihurtuz...

Arrazoi hauek eta (beste) gehiago ditugu abertzaleak ez zaretela esateko, eta beste bi mila antidemokratik zaretela azpimarratzeko (hain demokratik bazarete, utz iezaiozue Zumaia herriari erreferendum bidez kirol

GUTUNAK

Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu eta argitaratu nahi genituzke. Gutunaren luzera gehienez orrialde batekoa izatea komeni da, bestela laburtu beharra izango dugu.

portua nahi duen ala ez hautatzen), eta bat oso haundia sasibakezaleak zaretela baieztatzeko: jada bi urte baino gehiago pasa da Euskal Herriari bake bidea jorratzeko egin zaion proposamen bakarra jakitera eman zaiola eta hau ALTERNATIBA DEMOKRATIKOA da. ETak garbi utzi zuen Euskal Herriari autodeterminatzeko eskubidea ematen bazitzaion bere lurraldetasuna onartuz eta amnistia bat emanik, armen su-etena aldarrikatuko duela. Beraz, garbi geratzen da demokrata den orok onartuko lukeen bake proposamena dela. Benetako bakezaleak bazinate, aspaldian egingo zenukete honen aldeko apustua.x

Hala eta guztiz ere, ez da nahikoa hitzak plazaratzea, ekintzak bahar baititu gure herri maite honek. Has zaitzete bada, besteak beste, errealitatea ikusten eta Zumaia gazte mugimenduak dituen arazoetan murgiltzen, hauek ez baitira txantxetakoak.

Gora Euskal Herriko Gazte mugimendu iraultzailea!!!

Jo ta ke irabazi arte!!!!

Zumaia JARRAI

BALEIKEREN OHARRA:

Azken hilabeteetan zehar Iritzia eta Gutun en atalean argitaratu ditugun zenbait idatziren tonua ikusi ondoren, aldizkari honetako lantaldeak honako erabakia hartu du: **alderdi politikoen «panfleto» kutsua duten eta helburutzat beste norbait mindu eta iraintzea duten idatzirik gehiago ez argitaratzea.** Batetik, alderdien mezuak zabaltzeko egokiagoak diren beste bide batzuk badaudela iruditzen zaigu, esate baterako buzoiak, kartelak, beraien argitalpenak... Bestetik, ez dugu bata besteari kontrako irain mingarrien bozeramaile gisa jokatu nahi.

Batez ere Zumaia edozein gairi buruzko eztabaida eta iritzi trukaketa bultzatzea da gure helburua, eta jakina, alderdi politikoa badute horretan zeresana, baina gure irakurlego zabala kontuan hartu eta errespetuz idaztea besterik ez dugu eskatzen.

Bestalde gogorazi nahi genizueke gutunak ezizena-rekin sinatzea zilegi den arren, ezinbestekoa dela guk egilearen nortasuna jakitea. Beraz, gutunarekin batera izen-abizenak, NAN zenbakia eta kontakturako telefonoa jarri beharko dira.

Aldez aurretik mila esker.

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak

Zunbillo 4
Tlf: 861407

ROSI
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A
Tlf. 861670

Habana
auto

Mekanika eta
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 . 86 00 70
Zumaia

Solstizioa



ANA
ETXABE

Udararen estreinaldia San Juaneko gauean, beti izan da eguraldi aldaketa baino zerbait gehiago. Udaberri galduaren nostalgia eta ilusiozko mundu berri baten azalpena suposatzen du gehienetan. Une aproposa artzaiek hodei eta haizeak aztertuz eguraldiaren kontuak emateko. Eta guk gustora onartzeko.

Gure arbasoentzat udararen hasiera egutegiko denboraldi gogorrenetakoa zen, naturaren aldaketa zetorren, berrikuntza eta baita ere festa. San Juan gauean, urteko gau motxena, sorginek beren dantza misteriotsuarekin baserri eta lurrak girotzen zituzten eta gure aiton-amonek sorginkeri eta malefizio

guztien kontra egin behar zuten. Bestela urteko arto eta garia galtzeko arriskua zeukaten. Indar ezkutuek influentzia kaltegarriak, gaixotasun ugari eta zorte txarra zekartzaten eta aitzinako gizonek naturako elementu batekin kontra egiten zieten aurre: suarekin. Sua piztutzearekin, eta zenbait kantu eta otoiitzekin, kaltegarri izan zitekeena beren lurretatik kanpo botatzen zuten eta horrela, hurrengo goizean eguzkiak egunero bezala argituko zituen beren baserriak. Kantak esaten zuen bezala:

*«Sorgiñek eta lapurrek erre, erre,
artuek eta gariak gorde, gorde.
Gora San Juan, bier da San Juen!»*

Zoritxarrez gaurko gizarteak hondatuta dauzka jadanik honelako sinismenak nahiz eta zenbait festa edo praktikak mantendu, eta nahiko logikoa dirudi modernitatearen pausoak begiratzuz. Aspaldi honetan galduta gabiltza oso, txatarra eta burdinazko fabrika batean naturaren indarra kontrolatzeko gai izango bagina bezala.

Gaur egun ez daukagu astirik honelako arkaismoak kontuan edukitzeko. Daramagun erritmoarekin egia esanda, nahiko zaila da aitzinako kontuak sinistea eta askoz ere zailagoa praktikatzea,

Hala eta guztiz ere, San Juan gaua laister dator eta seguru nago batek baino gehiagok sentituko duela zerbait aldatzen edo berritzen bere gorputz barrenean. Batzuek alergía deitzen diote fenomeno honi. Ez dira ba izango sorginen gauzak?

Badaezpada piztu sua eta urrundu pentsamendu txarrak.


Baleikekoei



ELADIO
LETURIONDO
Villabonako
espetsietik

**Baleikekoei hurbildu nahian
nabil ni gaur bertso berriz
dirudienez sentitzen dira
nire berrien egarriz
ni zuei esker jakinean nago
hainbat gauza zoragarritz
irakurriaz ibiltzen bainaiz
oroipenez, herriz herri
Zumaiko berri ez nun jakingo
Baleike izan ez balitz**

**Jende jatorrez osaturiko
oso talde dotoria
esker on gutxi kritika asko
da zuentzako saria
hala ta guztiz lanean tinko
argitaratuz egia
bi bertso hauek dira zuentzat
Itziar-en oparia
honenbestean agurtutzen da
Villabonako txoria**



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412



SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g

Tel: 148082

78 Posta kutxa

Fax: 148081

20740 IRAETA - ZESTOA

BELARDENDA
SIWA



Esther Blanco

OSTEOPATA-MASAJISTA

Basadi 5-C behea

Tlf: 143404 - 860012

Kirol portuaren proiektua aurkeztu da

Maiatzaren hasieran jakitera eman zenez, Zumaia Kirol Portuaren proiektua ikusgai dago, honen ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko azterketarekin batera. Proiektua ikusgai jarri zenetik, hilabeteko epea egon da alegazioak egiteko. Gaztelania hutsez dauden bi lan hauek, salaketa eta alegazio ugari jaso dituzte, eta baita protesta herritarrak ere.

Badirudi azkenaldian gauzak mugitzen hasi direla portuaren inguruan. Duela gutxi, portuaren ordenazio plana eta honen inguruko proiektuak kaleratu zituzten, eta orain berriz Zumaian kirol portua egiteko proiektua bera honen ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko azterketarekin batera jarri dira ikusgai. Dagoeneko alegazio epea amaitu denean, esan daiteke proiektuak jasotako alegazio kopurua handia izan dela. Alegazio hauek, sektore desberdinetatik bideratu dira, bai alderdi politiko, talde sozial eta baita herritar soilen aldetik ere. Tartean, ingurugiroari egindago kalteak salatzen dituzten alegazioez gain, alderdi sozio-ekonomikoa nabarmentzen duten salaketak ere badaude, hauen ustetan, herriko ekonomia eta bizimodua hipotekatuko bailuke gisa honetako proiektu batek. Hauxez gain, aurkeztutako bi lanak gaztelania hutsez egotea salatzen duten alegazioak ere aurkeztu dira, euskaldunon hizkuntz eskubideak baztertzen baititu.

Joan den maiatzaren 25eko El Diario Vasco egunkarian Ricardo Peña



Joan den maiatzaren 24an protesta ekintza bat egin zuten Zumaia Bizirik taldekoek barraren inguruan. Protesta honekin salatu nahi izan zuten «2.000 milioi pezetako inbertsioa suposatu zuen barraren inaugurazioa egin berria delarik, sarbideko kanalaen sakonera metro t'erdia ingurukoa dela itsasbeheran». Era berean gogorarazi nahi dute, instituzioetako ordezkariak agindu zuten «sarbide berriak, bertan metatzen doazen sedimentoak ezabatuko zituen autodragatu sistema bat» izango zuela. Zumaia Bizirik taldeak egin beharreko azterketa behar bezala egin ez izana salatu zuten.

alkateak azaltzen zenez, litekeena da obrak irailerako hastea. Jose Antonio Maturanak, Garraio eta Herri Lanetako sailburua denak ere, Zumaia kirol portuak lehentasuna duela eta lanak udan esleituko direla aurreratu du. Zumaia Bizirik-ek salatu duenez «badirudi alegazio epea amaitu aurretik proiektua onartutzat jotzen dutela». Honen ildotik, ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko azterketa landu duen Azti enpresa «gaitasun gabekotzat» jotzen dute «lehen ere enpresa honek barraren obrarako egindako azterketa iruzur bat izan baitzen, geldituta zegoen obra nola edo hala martxan jarri ahal izateko». Hauen esanetan, «enpresa honek kirol

portuaren ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko azterketa, aurrekoa bezala interesatua, subjeliboa eta Puertos-eko zuzendaritza eta Zumaia Udalaren interesen menpe landutakoa da».

Protesta ekintzak

Udan zehar hainbat mobilizazio bultzatuko dituztela adierazi dute Zumaia Bizirik taldekoek, eta hauetan parte hartzera dei egiten diete herritarrei. Ekainaren 21erako herrian zehar kirol portuaren aurkako manifestazio bat antolatzea pentsatuta, eta udarari begira ere litekeena da duela hiru urte bezala baltsa bat jartzea Santixoko paduran. ■

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2

ERTZ
INFORMATIKA

UDARAN
INTERNET

OFERTA:
PENTIUM 166
CD-ROM
Koloretako inprim.

Mendaro Mariñela 3,
TEL./Fax. 14 33 95

Moilako bidearen konponketa udazkenean

Bost zentimetroko galipota kapa jarriko da barrua konpondu beharrean

Zuloz betetako moilako errepideko obrak udazkenean hasteko itzaropena du Udalak. Oraindik ere proiektua amaitu gabe dago Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza Sailan. Proiektua onartu ondoren lanen ezleipena etorriko da. Hau dena erabaki arte, ez da errepide hau konpontzeko lanik izango.

Luciano Paguegi udal arkitectoak kontatu digunez, lan hauetan ez da errepidea zulatu eta barrua konponduko, baizik eta Gurutze Gorritik arranplaraino joango den bost zentimetroko galipota kapa bat jarriko da. Konponketa guztia ez egiteko

arrazoia Eusko Jaurlaritzak lan hauetako aurrekontu haundirik ez edukitzea omen da.

Errepidea konpontzeaz gain, beste lan batzuk ere egingo dira. Alde batetik moilan eta arranplan jarriko diren bi ur hartune daude. Lehena itsasuntzi handientzat zuzendua dago; bigarrena, aldiz, Arbustain Motor Elkarteak



Errepideak orain duen egoera benetan penagarria da.

eskatutakoa da. Bestetik, arranplatik Pulpora bitarteko aparkalekuan pare bat paol jartzeko asmoa dute obra hauen barnean.

Gernika parkeko etxebizitzetako konponketak martxan

Maiatzaren azken egunetan hasi ziren Altuna y Uria-ko langileak zubi txiki inguruan eraikitzen ari diren etxebizitzetan Udalak agindutako konponketak egiten. Denbora dexentean geldirik egoteak sortu dituen presak direla medio, lanak jarraitzeko baimenik gabe ekin zion konponketa lan hauei enpresa eraikitzaileak. Udalean ziotenez, hirigintza batzordeak lanak jarraitzeko baimena onartua bazuen ere,

baimen honek ondoren Udal plenotik pasa beharra zeukan.

Apirileko alean aipatu genuen bezala, eraikuntza honek 80 cmtan gaintzen zuen proiektuan onartua izan zen etxebizitzaren altuera. Eraikuntzak 50 cm gehiago zituen baxuetan eta 30 cm teilatuan. Orain gehiezigizkoak diren 80 cm hoiek ganbaren paretik kenduko zaizkio. Horretarako teilatuko hormigoizko plakak kendu, eta bertako poste eta tabikeei soberako neurri hori moztu

beharrean izan dira. Ganbara hauek oso gutxi erabiliko direnez, ez zaio kalte haundirik sortu bertako bizilagunei. Bestetik, teilatuen forma ere aldatu beharra izango dute: lehen bi aldetatik erortzen bazen euritako ura, orain hiru tokietatik eroriko da.

Hala ere, agindutako konponketa denak egiten badiutuzte ere, enpresa eraikitzailea ez da Udalak ezarritako isunaz libratuko.



ZUMAI A



AUTO -ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeltian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Askatasunaren martxa Inda Mendi eta San Engrazin



Abialdian, askatasunaren martxa deiturikoaren barruan, Euskal Herriko 600 tontor igo zituzten hainbat herritarrek joan den hilaren 25ean. Bertan, euskal lurraldetasuna eta askatasun eskubidea aldarrikatzea zen helburua. Zumaia ere bi taldek hartu zuten parte ekintza honetan; talde jendetsuenak Inda Mendin ikurriña erraldoi bat jarri zuen eta beste batek Santa Engraziraino eramane zuen abialdiaren mezua.

San Telmo idazketa saria

XIV. San Telmo idazketa saria ospatu da aurtengoan. Zumaia eskola guztien artean lehiaketa bat egiten da urtero San Telmotan hiru arlotan, eta aurtengo irabazleak hauek izan dira: Mireia Salegi, Jaiotz Osa, Emille Gaztañaga, Oihana Aizpurua eta Shanti Calleja **ipuinetan**; Maria Otaño, Jaiotz Osa, Argia Azkue, Maite Ijurko eta Naiara Barredo **olerkietan**; eta Deñe Kerejeta, Oihan Iribar, Maitane Arrieta eta Iker Manzisidor **bertsoetan**.

Bestalde, aurtengo lehenengo aldiz, idazketaz gain, mintzamen sariketa ospatu da eta ondorengo hauek irabazi dute: Ane Artetxe, Maite Ijurko, Arkaitz Beristain, Maria Bulnes, Jon Olaizola eta Leire Basurko.

Zorionak saridun guztiei eta espero dugu laster idazle, bertsolari eta artista euskaldun onak izango ditugula gure artean.



Gas naturala Zumaian

Urte amaierarako herrian gas naturala zabaltzeko obren lehen zatia amaitua izatea espero da. Abendua bitartean, estazio auzotik zubi txikira bitartean jarriko dira tuberiak, horrela Estazioa, Alai, Aita Mari eta Basadi auzoak gas honetaz hornituz. Gasaren estazio regulatzailea Iberdueroren zentral txikia aurkitzen den lekuaren inguruan kokatuko da. Bertan, industrialdeko gasa giza kontsumorako gasa bihurtuko da.

Lehen zatia amaitu bezain pronto, gasa Narrondo ibaiaren bestaldeko kaleetara zabalduko da. Oraindik ere ez dago ziur zein auzo zulatuko den lehenengo, gas naturalaren horniduraz ardurtzen den enpresak etxe berriak nahiago baititu, eta momentu honetan bai Juan Belmonte eta bai Erribera kalean etxebizitza berriak eraikitzen ari dira. Gauza ziur bakarra, tuberiak anbulatorio aurreko oinezko zubitik igaroko direla da.

ITZURUN

KIROLAK
 Armiako plaza, 13
 Telef. 500758
 20750 ZUMAIA

ZUMER

TABERNA
 Erribera kalea, 2
 Telefonoa: 861125
 ZUMAIA

Itzurun
 ATEAK
 Itzurun zuhaitzbidea 2
 Tel: 861565
 143446
 ZUMAIA

ZALLA
 Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
 San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Paki
 Belardenda

OSASUN NATURALA
 Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA

 Ile - kosmetikan diplomatua
 Foruen Enparantza, 13 - 1 Tlfnoa: 861160
 ZUMAIA

Artea barran

Maiatzaren azken egunetan jarri zen barran eskultura lehiaketan irabazle gertatu zen Javier Elorriagaren «Estazio abandonatu bat, bi aulki eta mila istorio asma ditzake tristurak» izeneko instalazioa. Harrobitik ekartzean, eta arte lanak barran ezartzean ere bai, instalazioan zenbait akats izan ziren. Akats hauek konpondu bitartean, instalazioaren inaugurazio data atzeratu egingo da.



Petroluntzi bat Zumaian

Barinaga txatartegikoek desegiteko asmoa duten Bea I untzia, Panamako ikurriña duena, Gernika parkeko moilan dago azken asteotan. Jakin dugunez, untzi hau gasolina eta beste hainbat gai kutsatzaile eramán izan dituen petroluntzi bat da.

Espero dugu ez ezer gertatzea, baina ez litzateke lehen aldia izango, halako itsasuntzi bat desegitean, bere depositoetan oraindik gorde ditzakeen gaiak direla eta, ingurune guztia kutsatzea. Gogoan izan beharko litzateke legeak horrelako untziak hustutzero behartzen duela desegin baino lehen.

Laburrak

Larrialdietako sendagilea Zumaian

Joan zen maiatzean aipatu genuen bezala, badugu gure artean larrialdietako sendagile bat. Hala ere, batzordearen ustez, honekin ez da arazoa guztiz konpontzen, herritarrek ezin baitute zuzenean sendagile honengana jo, eta oraindik ere 088 telefonora deitu beharra baitago. Mediku honek Zumaiatik Aiarainoko eremu batean lan egin beharko duenez, gerta liteke beharra dagoenean bera beste herri batean egotea.

Bestalde, maiatzaren 29an batzordeak aurkeztutako mozioak, sendagilearen beharra onartu eta elkarrekin mobilizatzea eskatzen zuenak, HBren aldeko botoa bakarrik jaso zuen. PNV, EA eta PSEk, mozioaren erantzun gisa, beste idatzi bat irakurri eta onartu zuen.

Musika Banda Zallan

Zumaiako Udal Musika bandak Zallako banda txapelketan parte hartu zuen aurreko hilabetean. Zumaiarrek ezin izan zuten 36 partaidetik gorako mailan finalean sartu. Maila honetako txapelduna Iruñeko kontserbatorioko banda izan zen.

IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXEKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157

Maiaur
jolastokia

ibai alde,

gure ibaiak ezagutu eta maitatu

EAEko ibaiak nahiko egoera txarrean aurkitzen direla mila aldiz entzun eta irakurri dugu. Ibaialde programaren bitartez, datu konkretuak biltzeaz gain, kontzientziazio lan bat ere burutu nahi izan da. Gipuzkoa mailan Zumaiaiko Natur Taldea da programa hau antolatzeaz arduratzen dena. Guk, gure inguruko ibaiak nola dauden jakin nahi izan dugu.



Era guztietako zaborra topa daiteke Euskal Herriko ibai bazterretan.

Azterkosta programa ezagutzen duzuenok segituan igerriko duzue Ibaialde bere semea dela, baina kasu honetan ibaiei egokiturik. Zumaian Urola ibaiaren azken zatia eta Narrondo ibaiak ditugu. Zumaiaiko bi taldek hartu dute biak aztertzeako ardura. Urola ibaia, Kondekuatik Aizarna-zabaleraino, Udal Elkarteke Ingurugiro eskolak behatu du; Narrondo ibaia Zumaiaiko Institutuko ikasleen esku geratu da.

Zer aztertzen da?

Lehenik ingurunearen deskribapen fisikoa egiten da. Hau da, zenbateko zabalera eta sakontasuna dituen, uraren abiadura, ibai bazterren egoera, gizakiak nola moldatu duen... Urola ibaiak 51,5 kilometroko luzera du, azken zatian 1 eta 2 metro arteko sakonera du, eta zabalerari dagokionez, 10 metro inguru. Gizakiak egindako eraldaketei dagokienez, esan behar

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAI A

**Ekin
ELEKTRIZITATEA**

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILEERRA: Larretxo, 10 behe 1^a - Telf. 14 34 74
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

**SUKALDEKO
ALTZARIAK**

DORNUTEGI
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Anzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAI A
(Gipuzkoa)

da Urola ibaiaren arazo larriena argindarra lortzeko eraikitako ur jauziak direla. Hauek gehinetan ez dute arrainetzako pasabiderik, hauentzako gaindiezineko oztopo bihurtuz. Ibaiaren kanalizazioak eta industria eta herrietako isurketak dira beste eragin kaltegarriak.

Uren analisia ere egiten da. Horretarako, talde bakoitzak kit analitiko bat du, erabiltzeko oso erraza dena. Uraren ph-a, nitrito eta nitrato kopurua, oxigeno kopurua, eta temperatura neurtzen dira. Hauek ezagututa jakin daiteke ibaiak osasun ona duen ala ez. Urola ibaiaren kasuan, esan daiteke orokorrean egoera txarrean aurkitzen dela. Salbuespenak dira ibaiaren lehen zatia, goialdekoa, eta Aizarnazabaletik Oikiraino doana. Bi kasu hauetan urak bizia ahalbidetzen du. Lasaoko araztegiak mesede handia egin dio ibaiari.

Inguruan aurki daiteken fauna eta landarediaren zerrenda bat egiten ere saiatzen dira taldeak. Urola ibaian, arrainei dagokienez barboak, loinak, ezkailuak, amuarrainak eta aingirak dira ugariak. Hegaztien aldetik aniztasun handia dago ibai



Uren analisia egitea ezinbestekoa da ibaiaren egoera nolakoa den jakiteko.

osoan zehar (martin arrantzalea, uroiloa, txantxangorria...), landareekin gertatzen den bezalaxe (lizarra, sahatsa, erramua, makala...). Aldiz karramarrorik ez da ageri, eta ugaztunen artean uretako arratoiak, satorrak eta trikuak dira ohikoenak.

Ibai ondoan aurki daiteken ondare kulturalaren inbentario ere egiten da: zubi bereziak, dorretxeak, burdinolak...

Azkenik, tamalez gure ibaietan arruntena eta ugariena den *beste*

faunaren zerrenda egiten da: zaborra. Era, tamaina eta material guztietako zabor *espezie* ezberdinak topa daitezke: plastikozko ontziak, botilak, zorroak, egur zatiak, metalezko latak, oihalak... aurtan labdararik edo kotxe zaharrik ez da agertu baina noizbait talderen batek aurkitu izan du.

500 metroko tramo bakoitzarekin egiten da horrelako azterketa bat, inkesta bat betez. Gero inkesta guztien datuekin txosten bat osatzen da, bertan gure ibaien egoerari buruzko azterketa zabala jasotzen delarik.

Programa honen helburua, ibaien egoerari buruzko datu konkretuak biltzeaz gain, jendearen kontzientziazioa da. Gure ibaien arazoetaz jabetzeko bidea eskeintzen du Ibaialdek, eta interesik duen talde orori zuzendua dago. ■

Oikia aldean jasotako datuak:

- pH-a:** 8 (kutsatu gabeko ibaietan 5,5-8,5 bitartean).
- Nitratoak:** 10 mg/l (kontzentrazio maila egokia).
- Nitritoak:** 1 mg/l (hortik gora bizidunen heriotza eragin dezake).
- Oxigenoa:** 11 mg/l
- Temperatura:** 14°C

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458



KALARI
TABERNA

Zuzendaritza berria

- Eguneroko bazkaria
 - Pintxo eta bokatak
 - Koadrilentzako menu bereziak
 - Kazuelitak eta plater konbinatuak
- Erribera kalea 16 Tel. 86 25 17



Juan Belmonte 6
ZUMAIA Tel. 860415

San Pedrotako programa

Ekainak 27, ostirala

21,30etan Odieta pilotalekuan, Gomazko Pilotaz jokaturako III. Pala txapelketako azken partiduak.

Ekainak 28, larunbata

11etatik 13etara eta 16etatik 19etara Odieta pilotalekuan, San Pedrotako Scalextric Txapelketa. Zaletu guztiei irekia.

Eguerdian Txupinazoa udaletxeko balkoitik.

Ondoren kalejira Musika Eskolako trikitalari taldearekin.

17,00etan udaletxe azpitik erraldoi eta buruhaundiak kalejiran, Tolosako Dultzaineroekin batera.

19,30etan Udal Musika Bandaren kalejira.

20,00etan Tolosako Dultzaineroen saioa.

23,00etan San Pedrotako II. danborrada.

1,00etan Luhartz musika taldearekin dantzaldia plazan.

Ekainak 29, igandea

8,00etan Goiz-soinua Tolosako dultzaineroekin.

10etan Udal Musika Bandak alkate soinua joko du, eta udalbatza eta herritarrak prozesioan joango dira parrokiara.

10,30etan Parrokian, Meza Nagusia, Parrokiko San Pedro abesbatzak abestua.

12,30etan plazan Udal Musika Bandaren kontzertua.



Jarraian, dultzaineroen kalejira.

17etan Odieta pilotalekuan, eskuzko pilota partidu profesionala.

18,30etan E. Gurrutxaga plazan herri kirol jaialdia.

19etan Samasiku fanfarrearen kalejira. Gauerdian Astondoa etxearen eskutik suak.

Jarraian plazan Udal Musika Bandarekin dantzaldia.

Ekainak 30, astelehena

9etan Goiz-soinua Dultzaineroekin

11etan herriko gaztetxoentzat, Ginkana berezia plazan.

18etan Gernika parkean, Azkona taldearekin haurrentzat jaialdia, tailerrak...

20etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Tirri-Tarra fanfarrearen ikuskizuna.

23etan plazan, Arkaitza taldearekin dantzaldia.

Uztailak 1, asteartea

11etatik 13,30etara eta 16,30etatik 8,30etara haurrentzat parke berezia plazan eta Odieta pilotalekuan: zezen mekanikoa, puzgarriak, car-ak, tren txikia...

Uztailak 4, ostirala

19etan 650. urteurreneko ekitaldien hasiera ekitaldia, udal batzar aretoan. Hitzaldia: «Jakako Forua eta Carta Puebla», E. Barrenak.

Jarraian, Mari kalean, Herriko sortzaileei eskainitako plaka bat aurkeztuko da, eta San Pedro abesbatzaren ekitaldia.

Uztailak 5, larunbata

17etan, Urola ibaian piraguismo froga: Urola ibaiaren IX. igoera-jeitsiera.

19,30etan Udal Musika bandarekin kalejira Eusebio Gurrutxaga plazara; han «Zumaia 650» jaialdia.

22etan Odieta pilotalekuan, IX. San Pedro saria.

22,30etan Mari kalean San Pedro eta Beheko plaza abesbatzen saioak.

Uztailak 6, dantzari eguna

9,30etan Udal Txistu-bandarekin Goiz-soinua.

10etan plazan, partehartzaileei ongi etorria.

10,30etan hamarretakoa.

11,30etatik 14etara herriko kaleetan zehar dantzarien saioak.

14etan bazkaria.

17,30etan alarde berezia plazan.


18,00etan Urola ibaian, banku mugikorreko arraun erakustaldia.

20,00etatik aurrera plazan dantzaldia Urgabe taldearekin.



OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA



Amertze

Erribera kalea 6
Tel./Faxa: 861707



KRUZ MARI
MANZIDOR

Kooooorten!!!!!!!



RAKEL
DURAN

Deskojonatu egingo nintzateke!



MARINA
ANDA

Ni ez nintzan defendituko, nik laga egingo nioke hartzaka egiten.



ITZIAR
MANZIDOR

Nei ez in txupoyik!

Bram Stoker-ek *Dracula* idatzi zuela lehen mendeurrena betetzen den honetan...

Nola defendatuko zinateke Dracularen aurrean



FRANCISCO
JAVIER LEIZA

Nik ez det horretan sinisten, baina azken batian ez dakit zer egingo nukeen



PELLO
ETXABE

Berak nei muxu eman beharrean, neuk eman berari muxu haundi bat, eta uste diat horrekin geatuko nintzakela... ostia...



JOXE MANUEL
MANZIDOR

Bi urtian dutxatu gabe egonda.



JOXE MARI
AZKUE

Ni etsaiakin bat eginda, oseake... sutan bizi-bizikan erretzen, osea, elkarrekin ardo pixkat eranda... bueno odol pixkat eranda...

ILE APAINDEGIA

Merca Uranga

Etkezarreta, 19 20750 ZUMALIA
Telefona: 862342

TXALAPARTA

O P A R I A K

Angeles Sorazu 2
Tel: 143089

JE MAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375

Ataunen sortua, Saturraran eta Donostian hazia, apaizgintzako lehen urteak Gaintza eta Itziarren eman zituen. Zumaian hartu zuen lanbide

**Joanito
Dorronsoro**

hartako erretiroa, eta bertan bizi da orduz geroztik, herri eskolako irakasle lana eta bertsolaritza munduko bilketa ikerketa lanak konbinatuz.

«Zumaiako gazteria bertso kontuan nahiko jantzia da»


ZEIN OROITZAPEN DITUZU ZUMAIARA ETORRI ZINENENKO GARAIETAZ?

Beno, ni apaiz eginkizunak ekarri ninduen Zumaiara 1965 urtean. Garai hartatik, azpimarragarria iruditzen zait orokorki alde guztietatik nabari zen berrikuntza eta erreboluziorako joera. Bai langileria, bai eliza, eta baita politikan ere aldaketa grina nabari zen. Francoren azken urteak ziren eta mundu guztian ezker mugimenduaren indartzea ari zen ematen. Guzti horrek gugan eragin zuzena izan zuen.

Guk, eta apaiz ginen aldetik, eliza goitik behera aldatu beharra zegoela ikusten genuen, herrian txertatu beharra sentitzen genuen. Gainera garbi zegoen Euskal Herria zapalduta zegoela, euskara bultzatu beharra zegoela, langile zein zapaldu orori lagundu beharra zegoela sistema kapitalista eta handikien aurka, eta hala, ni pertsonalki, fundizio lantegian hasi nintzen lanean, eta kale mailan gazteekiko konprometitu nintzen Herri Gaztedia izeneko mugimenduaren barnean.

FUNDIZIOAN JARDUN ONDOREN, NOLATAN IKASTOLARAKO ALDAKETA?

Ez zen aldaketa izan. Ni Zumaiara etorri nintzen garai hartan hasi ginen ikastolaren inguruan



mugitzen, eta hasiera haietatik, hurrei bertsolaritza irakasteari ekin nion, fundizioz kanpoko orduetan. Gerora ordea, gaixoaldi larri bat igaro nuen, eta honen ondorioz fundizioa utzi beharra izan nuen. Orduan sartu nintzen ikastolan lanean.

HASIERA-HASIERATIK ARI ZARA ORDUAN BERTSOLARITZA IRAKASTEN?

Bai. Gure arbasoengandik zetorkigun etxe inguruko giroa galtzen ari zela nabari zen. gurasoengandik seme-alabengana transmititzen ziren abesti zein ipuinak, ahozko kultura, elkar bizitza medio. Baina ohitura edo bizimolde hau galtzear zegoen industriak

gizartean eragindako aldaketen ondorioz, eta iruditzen zitzaigun ikastola toki egokia izan zitekeela gurasoei erreleboa hartzeko.

Eta hala hasi ginen zenbait herritan bertsogintza eta bertsolarien historia irakasten. Hori bai, gure herrian bertsolaritzaren aireak haurrenganaino iritsi izana bertako ikastolari zor zaio, beste inon ez bezala, irakasle bat ordaindu baitu horretarako. Tamalgarria, baina hemendik urte gutxitara bertso irakaslearen lanpostu hori galdu egingo da, eta horrela urte askotako lana mozturik geldituko da. Ziur nago Espainian bertsolaritzak Euskal Herrian duen indarra izango balu, haur euskaldunek orain baino bertso gehiago ikasiko luketela

ZER NOLAKO BALORAZIOA EGINGO ZENUKE URTE HAUETAKO LANAZ?

Alde batetik, eta jendeak hori nabaritzen du, bertso eskolatik irten diren bertsolariak daude. Baina nik askozaz ere garrantzi handiagoa ematen diet bertso irakaskuntzak eman dituen bertsozaleei.

Zumaiako gazteria bertso kontuan nahiko jantzia da. Buruan ditut neska-mutil askoren izenak. Ez noa hemen aipatzera baina berrogeita hamarretik gora izango dira

Auto - Konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201



lagunartean bertso puntuka elkarrekin aritzeko gai direnak. Zer jolas politagorik? Eta zenbat ote dira, kasua datorrenean bertso bat edo beste paperean idazteko gai direnak! Bertsotarako kutsua zerbait bada ere barneratzen zaie, eta horrek niretzat asko balio du.

«Baikor naiz etorkizunari begira, eta abertzaleok, oinarrizko kontuetan behintzat, elkartuko garela espero dut»

BERTSOLARITZA BEHERA EGIN DUEN FENOMENOA AL DA?

Ez zait iruditzen hori gertatu denik. Telebistarekin gehiegi puztu zen agian, baina benetako bertsozaleek hor jarraitzen dute. Bertsolari gazteak indartsu datoz, helduek hor jarraitzen dute eta Bertsozale Elkarte burutsu ikusten dut lan desberdinak burutzen. Kultura eta euskara munduko beste arlo batzuekin alderatuta oso ondo ikusten dut bertsolaritza.

BERTSOTAN LIBURUAK ETA DOINUTEGIA ARGITARATU ONDOREN, ZER LAN DABILKIZU ESKU ARTEAN?

Une honetan ez daukat proiektu handirik. Amuriza eta beste zenbaiten lanarekin materialez nahiko hornituak gaudela uste dut. Dena den, doinu berriak eta lehen sartu ez nituenak biltzen dihardut, eta dagoeneko 500 inguru jaso ditut.

EUSKARAZ BIZITZEKO EZ AL DAUDE GERO ETA OZTOPO GEHIAGO?

Zalantzarik gabe. Donostiara joan eta ezin da inora sartu gaztelaniara jo gabe. Gaztelaniak prestigio askoz gehiago dauka eta elebitasunaren aitzakiarekin gure hizkuntz eskubideak zapaldu eta zapalduoi zapaltzaile deitzeko lotsarik ez dute izaten. Azalean, teoriarik, inor ez dago euskararen kontra, baina gero atzetik, eta isilean, beste era batera jokatzeko dute askok eta askok.

ZU BERTAN BIZI ZAREN HOGEITA HAMAR URTE HAUETAN ASKO ALDATU AL DA GURE HERRIA?

Ordudanik euri asko egin du. Zumaia, nola ez, asko aldatu da, onera eta txarrera. Hirigintzan adibidez aurrerapenak egin dira, konpondu ezineko akats beltzak tarteko direla. Eliza ere zenbait gauzetan aldatu da, baina atzera egin du Vaticano II kontzilioko espirituan, eta noski, askok garai hartan zituzten

ametsak hutsak suertatu dira, eliza ez baita konprometitu zapalduen aldeko burrukan.

Sasoi batean euskaldun abertzaleok bagenekien nor zen gure etsai nagusia eta guztiok elkarrekin genbiltzan goardia zibil, txibato eta oro har estatuaren aurka; gaur ez dakigu euskaldunok gure herria nork zapaltzen duen eta elkarrekin liskarrean gabiltza. Hala ere baikorra naiz etorkizunari begira; abertzaleok, lehen bezala, oinarrizko kontuetan behintzat elkartuko garela espero dut, hala nola autodeterminazioa eta lurraldetasunaren aldeko bidean, preso eskubideak errespetaraztea exijitzen...

Bukatu baino lehen, badakidanez Baleike irakurtzen dutela, eta daramaten borroka gogorragatik, besarkada handi bana bidali nahi nieke Patxi, Itziar zein Hilariori, eta baita Joxe Luisi ere. ■



Ataundarrak nonahi daudela! Aizarnako apaiza (Prontxio), maixua (Lukas) eta Joanito bera horren adibide.

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-

euskara-gaztelera-katalana -
ingelesa-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065

MAIJE
ILEAPAINDEGIA


Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278





"E : MC²"





Ulertzen al ditut

nerre

NAHIAK?

Nola ikasi jasotzen gustokoa dugun hori? Eta zer eman behar da hori lortzeko? Galdera hauen inguruan gure gizartean eraikiak daude erantzun «zuzenak», ondo eta gaizki dagoena, «balio zientifikoa» duten erantzunak. Dakizuenez gauza material asko izanik, estereotipoak

ondo betez gero eta emakumearen eta gizonaren paperak zein diren argi izanik, errez jasoko dugu eskatzen duguna. Dena ondo «konplementatuta» du gizarteak. Nik hau emango dizut baina zuk hori ematen badidazu. Ez al da hau pertsona izatearen truke egiten ari garena?

Eman, eman nahi dudalako eta jasotzea hortxe dago, zer nahi duan jakitean. Gizakiok badugu zer ikasi halako egoeretatik aske sentitzeko.

Norberak nahi duena zer den «**Ulertzearen erantzukizuna hartzea**» eta hau «**adieraztea**» egin dezakegun ikasketarik emankorra izan daiteke. Bestela adikzioa bihurtzen dugu askatasun bidea, norberarengandik ihes egiteko modua.


Gauza ederra da nahi dugun hori modu zehatz batean adieraztea, ez exigentzia izatea, afirmazio bat bezala. Ez bazaigu ahazten bakoitzak bere erabakien ardura onartzea, bi pertsonen arteko sexualitatea emango

da. Gauzak okertu egiten dira bietako batek ez duenean **nahi duen** hori modu argi eta negoziatu daiteken moduan **ulertzen** eta **adierazten**. Edo bestalde ez duenean onartzen berak erabakitako ondorioen ardura.

Sexualitatean adibide guztiak baliagarriak dira hau

praktikan jartzeko. Baina adi, ez dira kanpoan bilatu behar gure erantzunak. Hauek ez dira inoiz gure nahiak izango. Erantzunak norberak bere barruan ditu. Beraz, ezagutza eta esperientziaren bitartez hauek norberarengan ulertzea da aukera. Pentsatzea gauza bat da, intelektualki gauza asko dakigula uste dugu, baina hauek egiten ez diren bitartean ez dira gureak izango. Hau izango litzake hartueman modu bat. Nik ematen badut, egiten badut, eskeintzen badut (beti kontuan izanik nahi dugun hori gure onerako dela), nik neuk jadanik asko jaso dut. Sexualitatean espe-

ktatibak eta espekulazioak ez dute tokirik. Sexualitatea bizipen bat da, sentitu eta espresatzen den komunikazioa!



Ainhoa Iturbe

Galezkulo
 inportaturiko erroa
 eta artisautza
 Basadi 3 Zumaja

TXOKOA
 T
 B
 E
 R
 N
 A
 Artadi
 Auzoa
 86 21 89


AIZPURUA
 L
 I
 B
 R
 U
 D
 E
 N
 D
 O
 P
 A
 R
 I
 A
 K
 Aita-Mari Auzategia, 17
 Telefonoa: 861569
 20750 ZUMALA

Bi monumentu

Zumaian, 1881 urtean paol bidearen proiektua onartu zenean, estatuak, itsasoari irabazitako lurak eskeini zituen, hauek lurrez estaltzearen orde. 1896 urtean Iturtxo-Ondartxo izeneko lur zati honen salmenta baimendu zenean, Jose Agustin Arbillaga jaunak hauen eskaera egin zuen Yaku ohial fabrika bat eraikitzeko.

1898tik 1921 urte bitartean igaro zuen «yutera» honen jarduerak; fabrika Mutrikura joan zenean, sortu berria zen Balenciaga S.A.k lantoki gisa hartu zuen. Nik betidanik ezagutu izan dudanez, askok bezela, ez diot eraikuntzari interes haundiarekin begiratu, interesik ote zuen ere ez bainekien, Industri Arkeologia argitalpen batetan ikusi nuen arte. Liburu honetan, fabrikaren harrizko arkuak eta batez ere, bulegoak osatzen duten hegalkina azpimarratzen zituen, Gipuzkoan aurki daitekeen bakarretakoa baita.

Oviedon, 842-850 urte inguruan, hau da, ia 1.100 urte lehenago (Asturiasko Ramiro I erregearen garaian), eraiki omen zen Naranoko jauregi ohia; gerora Sta. Maria del Naranco eliza bihurtuko zena. Harrizko eraikuntza hau, Oviedo gainean dagoen izen bereko mendiaren maldetan aurkitzen da, paisaia ikusgarri baten gainean. Asturiar arkitekturaren sortzearekin bat, bisigodoaren antza aurkitzen diote batzuek. Hala ere kultura musulmana kanporatu ondoren sortutako



estiloaren adibiderik garbienetakoa kontsideratzen dute. Harriz egindako eraikuntzaren legeak errespetatuz, mendebalde eta ekialdeko altxaeretako arkuak aipatuko nituzke bereziki, bitxi kutxa baten itxura izanik, altxor ezkutua agertzen baitigu, hau da, barneko «boveda». Aldare txiki bat izanik, mahai biribilaren zaldunen garaietara bueltatzen digu bat-batean.

Esan daiteke, Asturiako eliza honek, estilo berezi bat aurkezten digula bere eraikitze formekin. Harriak, gainera, denborarekin balioa gehitu dio. Gaur egun erabilpenik ez duen eraikuntza honek, hala ere historiak



eskeintzen digun ondasunean ohorezko lekutxo bat lortu du mrezimendu osoz. Bai asturiarren historian eta baita ere Artearen historian. Gure Yaku fabrika izandako honek ere, baditu bereizgarri egiten dituen hainbat ezaugarri; besteak beste hegalkineko altxaera osatzen duten bost arku, arkitektura musulmana gogorarazten dutena. Hauek ez

dira harrizkoak, noski, egurrezkoak baizik. Eta noski ez dituzte 1.000 urtek ematen duten berezko ohorea jaso.

Txapa honen ondoren, igerriko zenuten noraino heldu nahi dudan. 100 urte bete berriak dituen eraikuntza hau nabarmendu nahi dudala alegia, Zumaiaren historian zati garrantzitsu bezala; orain azkenetan dagoela entzuten dudanean. Askorentzat ez dira nahikoa izango egurrezko arku kurioxo batzuk, San Pedro elizan, haundiagoak eta gainera harrizkoak ditugun bitartean. Arrazoia eman beharko diet, noski, horrela pentsatzen dutenei; argudio txikiegia izan daitekeelako eraikuntza guztia berreraikitzea eskatzeko. Zeren berritze lanek obra berriaren kostua gainditzen dutenean teknikariek ruina hitza erabiltzen dute. Ruina izan edo ez izan, pentsatzen dut askok gustora mantenduko luketela, gure monumenuo txiki hau; besterik ez bada ere ikustea gogoratzea baino errezagoa delako; eta agian kanpotik ikasi behar genukeelako etxean ditugun altxorak bereizten. ■

Daniel Carballo Ostolaza

AHOLKULARITZA
JRURE

GESTORIA

Erribera,17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel. 861485

English School
Harvest

Ingeles ikastaroak urte guztian zehar

I. Zuloaga 1, 2-B Tel. 143334

Oikiako eskola bizi-bizirik

Azken urteotan izugarri aldatu da eskola txikietako hezkuntza, hobera noski. Baliabide eta azpiegitura aldetik beste eskolen aldean juxtu samar ibili arren, eskola txikiek badituzte zenbait abantaila: giro lasai eta sanoagoa, talde txikiak --eta ondorioz, ikasle-irakasle harreman sendoagoa--, euskara jatorragoa erabiltzen da...

Oikiara iritsi garenean plazan bertan topatu ditugu ikasle eta irakasleak. Txikienak danborra jotzen eta handixeagoak dantzan numerotxo bat entsaiatzen ari dira; izan ere, hil honen 8an Adunan Gipuzkoako Eskola Txikien X Eguna ospatuko da eta eskola bakoitzak zerbait egin beharko hango jaialdi nagusian.

Berehala bukatu dute saioa eta barrura sartu gara, Feli eta Marga andereñoekin hitz egin asmoz. Eskola txikia da, bai, baina pixkanaka txukundu eta hornitzen joan direnez nahiko ondo prestatuta dago gaur egun. Une honetan 19 neska-mutil daude eskola honetan, 2 eta 9 urte bitartekoak, baina zaharrenek beste 3 urtez bertan jarraitzeko aukera izango dute, lehen hezkuntza amaitu eta DBHn hasi baino lehen.

Dagoeneko 17 urte dira Feli Uria hona iritsi zela, eta Oikiako eskola aspalditik martxan zegoen arren orduantxe hasi ziren oraingo



Hogei neska-mutil inguru dabilta eskola txiki honetan.

eredua eskeintzen, hau da, euskara hutsezko irakaskuntza. Hasiera batean bera bakarrik aritu zen lanean, gero bigarren andereñoa etorri zen, eta orain hirugarren bat ere etortzen da ingelesa eta beste irakasgai batzuk ematera.

Eskola hauetan beste erritmo bat daukate, herri handietakoa baino askoz lasaiagoa

Eskola hauek izugarritzko garrantzia izaten dute honelako auzo eta herri txikietako bizitzan, txiki-txikitatik autobusa hartu eta kanpora joaten ibili gabe bertan ikasteko aukera ematen baitute. Gainera, taldeak oso txikiak izanik harremanak estuagoak dira eta irakasleak ikasle bakoitzaren jarraipena askoz gertuagotik egin

ahal izaten du. Adin desberdineko jendea elkarren ondoan egotea ez da oztopo izaten; alderantziz, askotan zaharrak gazteari laguntzen dio eta komunikazioa asko lantzen da. Gainera gai jakin batzuetan material berezia lantzen dute, mailaka izan ordez zikloka banatzen dena.

Eskola hauen arriskurik handiena haur kopurua izan ohi da. Esate baterako duela 17 urte seiko taldeak hasten ziren; geroxeago lau lagun etorri ziren urtero eta kopurua jeitsi egin zen, hutsuneak izatera heldu arte. Orain, zorionez, lauko taldeak daukate berriz ere, eskolaurrean. Felik aitortu digunez "hemen nahikoa da bi familiak alde egin eta inor ez jaiotzea taldeen banaketa hankaz gora jartzeko".

Aurrera segitzeko ez dute oztopo nabarmenik ikusten. Feliren ustez "beti gabilta eskola handiak



GILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxe. 860169



ARRAIN ETA
MARISKOAK

BARAZKIAK
ETA
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

baino bitarteko gutxiagorekin. Adibidez, ordenagailu bakarra daukagu, Institutuak nahi ez eta ekarri zigutena". Baina egia da due-la urte batzuk baino askoz hobeto hornituta daudela: idazmakina, foto-kopiagailua... eta baita hiztegi, liburu eta aldizkari ugari ere.

Harremanak estuagoak dira eta komunikazioa asko lantzen da hemen

Azpiegitura aldetik ere zenbait hutsune badituzte, baina gutxienez frontoi estaliarekin eguraldi txarra egiten duenerako gune aproposa izango dute laster.

Eskola hauetan, etxean eta kalean bezalaxe, beste erritmo bat jarraitzen dute, herri handietakoa baino askoz lasaiagoa. Eta honen ondorioz, Zumaiara joaten direnean zenbaitetan kosta egiten zaie aldaketa horretara ohitzea. Baina nahi duenak erraz lortzen du hori gainditzea eta hor dauzkagu eskola honetatik igarotako zenbait gazte unibertsitate ikasketak burutzen.

Oikiako haurrak, eta gazteak berdin, denak batera ibili ohi dira, koadrila bezala. Feli Uriaren esanetan *"haurrak amorratzen daude Adunara joateko, askoz hurbilago ikusten baitituzte eskola mota honetako haurrak herri eta hirietakoak baino, hobeto integratzen dira taldean"*.

Urte askotan berdin jarraitu eta 8an Adunan primerako eguna pasa dezatela. ■



Oikiako haurrak gogo handiz ari dira Adunarako emanaldia prestatzen.

Gipuzkoako Eskola Txikien eguna Adunan

Ekainaren 8an ospatuko da Adunan eskola txikien egunaren 10. edizioa. Goizeko 10etatik hasita neska-mutilen jaialdia, bertsolariak, Super1-eko jolasak, herri bazkaria, erakusketa eta beste hainbat gauza izango dira. Aurtengo antolatzaileek ahalegin berezia egin nahi izan dute eskola hauek herri eta auzo txikietako bizitzan duten garrantzia azaltzeko.

Duela hamar urte inguru hasi ziren elkarlanean eskola txikiak. Ordura arte "eskola unitario" edota "eskola errural" izenez ezagutzen ziren haiek "D" ereduak eta publikoak dira gaur egun. Une honetan 900 ume eta 70 irakasle daude 26 eskolatan banaturik. Gure ingurukoak dira Aizarnazabal, Arroa eta Aizarnakoak, eta antzekoak daude Aginaga, Alkiza, Asteasu eta beste leku askotan ere.

Nafarroa eta Araban ia ez dago horrelako eskolarik eta "kontzentrazio eskola" deitzen direnak nagusitu dira. Bizkaian lehen asko ziren, baina azkar ari omen dira gutxitzen. Gipuzkoan, ordea, badirudi arazoa ez dela hain larria. Batetik, administrazioaren errekonozimendua lortu dute, baliabide eta dirulaguntzen banaketan zerbait hobetu beharra ikusten duten arren. Bestetik, eskolen arteko elkarlanak emaitza onak izan ditu, besteak beste dena koordinatzen dabilen liberatu baten lanari esker. Aurrerantzean, dena den, arriskurik ez da faltako, ikasle kopuruaren beherakada, esate baterako. Horren lekuko ditugu Gipuzkoan bertan ixten joan diren eskolak, horien artean Meagakoa.

Alberdi

GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155



BASADI-KUSTATEGUIA, 4A
ZUMARRA
TEL. 863041

HIRATEGIA
URDATEGIA

ENTER INFORMATIKA
BALASAR DE ETXABE z/g
ZUMAIARA
☎: 86.11.75
☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA
SERBITZU TEKNIKOA
HARDWARE ETA
SOFTWARE
INFORMATIKAKO KURTISOAK



Gazte Batzordea uda prestatzen

Gazte Batzordea uda prestatzen

San Telmoen ondorengo ajea igarota, bagatoz berriz ere gerra ematera. Gazte Batzordea hilaren amaiera aldera elkartu da, jende mordoxkatxo bat inguratu zelarik bilerara. Aztergai izan ziren kontuak aipatzen hasteko, kirol portuaren eztabaidarekin has gaitzke. Izan ere herritarron artean jada gauza jakina da proiektua aurkeztu dela, alegazioak aurkezteko epea amaitzear dagoelarik. Arazo honen konponbidean gazteok ere murgildu beharrean gara, horretarako gertakarien nondik-norakoak jakitea komenigarria zaigularik. Hala, eta Gazte Batzordearen urteurreneko ekitaldi moduan, hilaren azken ostiralean Zumaia Bizirik taldeko kide bat izan genuen gure artean, kirol portuaren inguruko argibideak emanaz. Gaiaz gehixeago enteratu ostean, datozen aste hauekoren batean gazteon artean eztabaida bat aurrera eramateko asmotan gara, Gazte

Batzordeak gaiaren aurrean izan behar duen postura definitu asmoz. Bilera eguna, ordua eta tokiaren berri aurrez jakinaraziko da.


Bestalde, San Pedroak ere badatoz. Baina beroa dela eta ez dela, gazteok moteldu egiten garenez, festetarako bazkari herrikoia besterik ez antolatzea erabaki dugu. Azkenaldi honetan Erribera kalean egin ohi ditugun bazkarietan izaten den giro alai eta jendetza ikusita, ohitura honi eutsi

beharra dagoela iruditzen zaigu; ea oraingoan Goiko pareraino iristen garen!

Amaitzeko, aipatu uda amaieran izaten den kontzerturako talde bila hasi beharra dagoela. Beraz proposamenak izanez gero, jakitera eman. San Pankrazio joan da, bertan dugu San Romualdo. Pixka bat aurrerago San Pedro, eta Bilbotik oso gertu San Turtzi. Ondo igaro festak, horretarako dira eta!

Gazte Batzordea

Martxa honetan Gazte Batzordea elkarte gastronomiko bihurtu beharko dugu!



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

AZKUE


Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853



Alemanieraz blai
uda fresko eta alai

MATRIKULA ZABALIK
Zigordia 11 - 1. Tel. 835609
Zarautz



Txapelketaren azken txanpa


Bigarren fasean bete-betean sartuta, oraingoz ez ditugu sailkapenak eskuartean. Hala ere esan dezakegu txapelketarekin batera, bikoteak gero eta sendoago ikusten ditugula. Beraz sorpresa gutxi, aurreko txapelketari dagokionez, aurreko urtetako antzeko bikoteak baititugu azken txanpan lehia bizian. Aipatzeko, Arratibel anaiek erakusten duten nagusitasuna, Alkorta-Urbieta gazteen ohizko hobekuntza, Gorostola-Aizpurua koinatuen konpenetrazioa eta beste zerbait aipatzekotan Ostolaza anaiek osatzen duten bikote orekatua.

Nesken txapelketan Aizpurua-Egaña eta Salegi-Mancisidor aipa daitezke, Gabarain ahizpei irabazi ondoren (aipagarria Gabarain atzelariaren joku ikusgarria), lehen postuetan baitaude. Bestalde Alvarez-Beristain edota Grijalba-Etxabe bikoteak erakustaldi politak ari dira eskeintzen. San Pedrin txapelketan saltsa da nagusi; aipatzekotan Ulacia-Iraundegi bikotea, batik-bat atzelari moduan jolasten ari den Ulacia, pelotari izan dena beti pelotari izango dela erakusten baitigu.

Bigarren fase honetan bada aipatzea merezi duen mutil bat: Romualdo Artetxe, auto istripu baten ondoren pilotalekutik kanpo geratu baita. Pilotalekutik diot, txapelketa laguneren bitartez

biziki jarraitzen baitu. Frontoietara bueltatzeko zertxobait egon behar badu ere, finaltan espero dugu gure Romualdo lankide sutsua. Gertakizun hau dela eta, txapelketa umezurtz geratu zen egun batzutan.

Bukatzeko, esan finalak Ekainaren 27an jokatuko direla. Hasteko ordua gaueko 9,30ak izango da, horrela festagiara zertxobait berotuz. Aipagarria da hiru finalak, San Pedrin, San Pedro emakumezkoetan eta San Pedro gizonezkoetan, ordena horretan jokatuko direla, eta aurreko urtetako 3. eta 4. postutako partidua ez dira jokatu. Beraz zorte on guztiei!



Ostolazatarak joko fina erakusten ari dira.

Izerdi tantak

Trainerilla denboraldia amaitu da zumaiarrentzat

Euskadiko txapelketan sartu ez direnez, Aita Mari Arraun Elkarteak amaitutzat eman du denboraldia. Urte honetan hiru txalupa ibili dira arraunean. Zumaia A denboraldi guztian zehar lehen hamarren artean ibili da. Zumaia B trainerillak 20aren inguruan ibiltzearekin konformatu behar izan du, eta Zumaia C, aldiz, azken postutan sailkatu da denboraldi guztian. Honek badu bere arrazoia, jubenil bat ezik, beste denak berriak baitira. Esan beharra dago aurreko urtetik hona gorakada nabarmena izan duela Zumaiako untxiak, 4. postu inguruan ere ibili baita.

Bestetik aipatu behar da traineru denboraldia ekainaren 15ean hasten dela Mutrikun. Espero dezagun Telmo Deunekoek aurreko urteetako itxura baino hobetua erakustea.

Zumaiako bosgarren

Oscar Castrok entrenatzen duen Zumaiako futbol taldeak, denboraldia zorioneko bosgarren postuan bukatu du. Ez da postu txarra denboraldian izan dituzten gorabeheren ondoren. Denboraldi hasieran gogor aritu ziren, goiko postuetan sailkatuz. Denboraldi erdialdean zertxobait jeitsi zuten beren hasierako joko erraza, bukaeran zorte pixka batekin berreskuratu dutena. Gipuzkoako regionaleko lehen mailan beste 16 talderen aurka jokatu behar izan dute, beraz ez da batere denboraldi txarra izan gure gorritxoentzat. Hurrengo urtean UEFA jokatzeko prest!

SOLOZABAL AUTOESKOLA



P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Gidatzeko karnet guztiak

-Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituen
-Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
-Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



Loitz

Erribera 4
Tel./Fax:
143422

*Eskola eta
bulegorako materiala
*Enkoadernazioak
*Fax publikoa
*Aldizkari eta opariak

Zumaia-Zestoa-Azkoitia triatloia, uztailean

III. edizioa uztailearen 19an izango da 16,30etatik aurrera



Parte hartu nahi duzuenoi lehenbailehen prestatzen hastea komeni zaizue.

Hirugarren edizioa beteko duen Zumaia-Zestoa-Azkoitia triatloia aurtengo honetan uztailearen 19an izango da. Itsasgora dela eta, arratsaldeko 4,30etan emango zaio hasiera saioari. Ohi den bezela lehen froga 1.500 metroko igeriketa saioa izango da. Jarraian, eta ur gazia kendu ondoren, Zarautz eta Meagatik pasa ondoren Azkoitira eramango dien 40 km-ko bidea egin beharko dute bizikletaz. Azkeneko Azkoitia bertan izango den zirkuitu batean beteko duten 10

km-ko korrikaldia geratuko zaie kirolari hauei.

Irabazleak bi ordu inguru behar izaten dituen froga honetan parte hartu nahi duenak, polikiroldegian eman beharko du izena uztailearen 17a baino lehen, nahiz eta azken orduan apuntatzen denak ere triatloia korritzeko aukera izango duen. Izena ematean, federatuek 2.000 pezeta ordaindu beharko dute, eta federatu gabeek 3.500 pezeta, hauek segurua ere ordaindu beharko baitute.

Izerdi tantak

Udako kirolak aukeran

Udako opor hauetarako, Zumaia Udal Polikiroldegiak hainbat kirol ekintza antolatu ditu herriko haur eta helduentzako. Hurrei dagokionez, ikastaroak hiru leku ezberdinetan izango dira. Alde batetik, Itsas kiroldegian emango diren piraguismo, arraunketa eta bela ikastaroak; bestetik, polikiroldegi bertan izango diren tenis saioak; eta azkenik, Azpeitiko igerilekuan emango diren igeriketa ikastaroak. Helduentzat, aldiz, hiru ikastaro besterik ez dira izango: Itsas kiroldegian emango diren piraguismo, bela eta arraunketakoak.

Interesik baduzue, deitu 862021 telefonora

Futbito txapelketa

Uda honetan zehar jokatu den futbito txapelketarako 28 talde aurkeztu dira. Talde hauek 5 multzotan banatuko dira. Ziur aski, aldizkari hau ateratzerako futbol taldeak lehian izango dira.

Jesuskoa Faletxea



Apuca 86 17 39 • Cikila - Zumaia

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

EGUZKI PUB

KOHEL
BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAIKAZ, ZUHAIKAZ
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA

KUKUTZ

baltasar
etxabe 7 ZUMAIA

Tel:
860569

San Pedrotarako kuadrilako kamixetak



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 20750 ZUMAIA
Telefona: 861433
Fax: 861067

ANTZERKI EMANALDIA



Ekainak 20 ostirala
Gauko 10,30etan
Aita Marin

BEDEREN 1

taldearen eskutik

Udaberriko lore guztiak

ARGAZKIAK

Ekainaren 2tik 23a bitartean

ZUMAIKO ARGAZKI LEHIAKETA arako lanak aurkezteko epea. Zumaiarrentzat atal berezi bat izango da diapositibetan

Ekainaren 15etik aurrera,
Foronda Kultur Etxean,
MEDICOS SIN FRONTERAS
erakundearen
2. ARGAZKI ERAKUSKETA



ARTISAU AZOKA

Ekainak 22 igandea

Eusebio Gurrutxaga plazan

egun guztian zehar

*Artisauak lanean, txalaparta,
trikitixa, eta abar...*

UDAKO JAIEN KARTEL LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea hil honen
23tik uztailearen 9ra izango da.
Oinarriak Kultur Etxean eskatu.

Saria: 60.000 pta.

SAN JUAN SUAK



Ekainak 23 astelehena
gauko 10etan
San Juan Iturri
inguruan

Ekainaren 13tik 15era
Basadi eta Aita Mari
auzoetan

SAN ROMUALDO
jaiak



BERTSO EMANALDIA

Ekainak 13 ostirala
Arratsaldeko 7,30etan
Oxford aretoan

Zumea ikastolako 6. mailako
43 lagunek Fernando
Amezketarrarekin hasi eta
Txirrita bitarteko bertsolari
zaharren biografiak, txiste
eta bertsoak kantatu eta
kontatuko dituzte.

Kitarra kontzertua

Ekainak 6 ostirala
gaueko 10,30etan
Oxforden

JUAN ANDRES UNANUE

Blues, flamenco, klasikoa...

HITZALDIA

Ekainak 19 osteguna
Arratsaldeko 7,30etan
Oxford aretoan

PIARRES XARRITON

Herrian eta
deserrian denbora
baten lekuko
(60-70)

Antolatzaile: Inpernupe
Kultur elkarte

KONTZERTUAK

Iargin

Ekainak 7 larunbata

VANTROI

(mexikar rock zapatista)

+ TXARKEI

Ekainak 20 ostirala

LIVE IN THE ATTIC

ELEMENTS

zinema euskaraz

Ekainak 15 igandea
Arratsaldeko 5etan
Aita Mari zinean

ROBIN HOOD

Sarrera: 100 pta



ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA



**JUSTA
TABERNA**
EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20



IHINTZA
taberna

Tlf: 860472
Ortega y Gasset, 3



NIKOL-ENEA
taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

**GURE TXOKOA
TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Zinea

THE RELIC

Zuz: Peter Hyams
Akt: Tom Sizemore
Penelope Ann Miller

The Relic Peter Hyams zuzendari estatubatuararen azken filmea da. Zuzendari honek fantasiako zine mailan, azken urteetan egin diren filmerik

interesgarrienetakoak ditu: *Capricornio Uno*, *Atmosfera Cero* eta esaten dena baino hobeagoa den *2010: odisea dos*. Egia da baita ere, azken urte hauetan Van Dammeren eskutan erori ondoren, filme zeharo kaxkarrak egin dituela, baina badirudi *The Relic* honekin berriz ere forman aurkitzen dela Peter Hyams.

Best seller batean oinarrituta dagoen filme honek, Chicagoko museo batean aurkitzen den munstro ikaragarri baten hilketak eta ondorioz, piztia honen harrapaketa

kontatzen ditu.

Alien eta *Jurassic Park*en eragina duen terrorezko filmeada hau, baina lasai, ez baita Spielbergen lan hura bezain faltua. Esan liteke 50eko hamarkadako zientzia-fikziozko filmeen kutsu hori duela. *The Relic*, denborapasarako pelikula aparta.



COLETAZOS: El monstruo mide más de cinco metros del hocico a su mortífera cola.

IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen duzue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.

Dasta eta goza itzazue ahal duzuen neurrian



- Non dago basques' harbour
- Gauak eta hiriak
- Kalamidadearen liburua
- 9508 narrazioak
- Euskal literaturaren historia txikia

Koldo Izagirre
Ur Apalategi Idirin
Joan Mari Irigoien
Askoren artean
Jon Kortazar

Euskaraz



Haur/Gaztetxoentzat

- Arthur erregearen egintzak *John Steibeck*
- Zipriztin *Joxantonio Ormazabal*
- Benni ixilik dago *Peter Steinbach*
- Arrain Gorria *Pello Añorga*

Gazteleraz

- Punto crítico *Michael Crichton*
- Festejos de boda *Naguib Mahfuz*
- La flaqueza del bolchevique *Lorenzo Silva*
- Marranadas *Marie Darrieussecq*
- G.G. Márquez, el viaje a la semilla *D. Saldivar*

expert
ELEKTROGAILUAK
Mertxe Aizpurua

Etxezarreta 6
Tel. 861078 ZUMAIA

EGOKI
ERLOJU DENDA

E.Gurrutzaga plaza, 6
ZUMAIA

ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

BARATZA band: Autoelkarrizketa

LEHENENGO GALDERA: ZER ESAN NAHI DU BARATZA BASSEK?

- Ba al dakigu? Imanolen ispirazioa izan zen; kontzertu prezipitatu baterako asmatua.

ETA BARATZARIK BA AL DAUKAZUE?

- Baleike galdera tipikoa.
- Bai, nik balkoi guztia zekat.
- Tomatiena, ta...
- Kristorena, terraza beteta.
- Neri hil egin zaizkit denak, baina...

- Baina badakazu lurra, ez? Ba hori da baratza.

- Ah! lurra nik ere badaukat.
- Kristoren jeranioak.
- Bai, urtero lantzen degu...

Uzta zoragarria.

ZE MUSIKA JOTZEN DUZUE?

- Reggae, fusion.
- Patxanga.
- Reggae patxangeroa.
- Reggae, ska eta influentzi rockeroak.

- Black music...

NOLATAN BLACK-MUSIC ZUMAIAN ZAZPI ZURIK EGINDA?

- Gure sustraiak ez dira, baina azken finean denok gatoz Afrikatik.

UZTE DUZUE REGGAEAK BADUELA ETORKIZUNIK?

- Bai, ez al duzue entzun Jon Maiak Araba Euskarazerako egin duen kantua... reggae da.

- Baina reggaea ez da leku askotan entzuten.

- Bai, baina hori hemen kultura



musikalik ez dagoelako da.

- Orain entzuten da ba, *Spice Girls*, edo hori, ta mundu guztia flipauta.

- Gaur egun ez da ezer entzuten hemen, eta ez da entzungo, ez bada aldatzen...

ORDUAN ZERGAITIK IKUSTEN DIRA BOB MARLEYREN HAINBESTE KAMISETA?

- Jendeak *guaya* izan nahi duelako.

- Erljioagatik izan daiteke.
- Baina gazte hauek ezagutzen al dute ba rasta filosofia?

- Keba!
- Benetako rasteak erlijioa jarraitzen dute, musika entzun, eta jantzi ere era batera egiten dira.

- *Bob Marley*ren kamiseta porro bat erretzen duen edonork jantzen du.

- Triangelu bat da: reggaea,

porrua eta *Bob Marley*ren kamisetak., rasta filosofia baino gehiago.

- Irudi sozial bat da.
- Saltzeko. Marketing.

ETA ZUEK MARIHUANA ETA REGGAEA ONDO NAHASTEN AL DITUZUE?

- Marihuana da, tio, ambientea sortzeko, tio, ta ez dakit, tio, lasaitzeko.

- E! Bi erretzaile pasibo ere bagaudela taldean...

TALDEAN JENDE GUZTIA DA PLURIMUSIKOA. NOLATAN HORI?

- Hori lokaleko saltsa da; batek instrumentu bat hartu, gero bestearekin trukatu...

- Bakoitzak bere limitazioak ere baditu.

- Orain formazioa honela dago: Izar eta Imanol baterian eta perkusioetan; Satel gitarra eta



BASUSTA ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAI



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15

Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

ahotsak; Ladis eta Igor ahotsak, baxua eta perkusioak; Nerea ahotsa eta perkusioa eta Jon organoan.

ETA REGGAE TALDE BATEAN HAIZE SEKZIO BAT HAIN OHIZKOA IZANDA, NOLATAN EZ DUZUE?

- Behar dugu, bai.
- Bandako jendea edo hartu beharko dugu.
- Bandakoa bai, fijo.
- Ladis daukagu hemen tronpetista rebelazioa!
- Nere aitona saxofoi bat zeukan, tio, non egongo ote da saxofoi hori.
- Hortik heredatuko zenuen orduan.

- Eta nere amonarengandik. Nire amonak kriston ritmoak zeuzkan... tarra-tarra tarra ta tarra...

ZOMOLO-MOZOLO ZUEN PERKUZIO TALDEAK NOLA JARRAITZEN DU?

- Bai, orain Baratzen gaude lehenago perkusio taldean elkartu ginen denak.
- Nik hurrengo Baleike festarako badaukat perkusio eta argi espektakulu bat pentsatuta.
- Ze imaginazio...

ZERBAIT EXTRAMUSIKALA: KIROL PORTUARI BURUZ ADIBIDEZ...

- Ba ekainan kontzertu bat daukagu Zumaia Bizirikekoek antolatuta.
- Ze iritzi duzue arazo honi buruz?
- Gu kirol portuaren zeharo kontrakoak gara, taldeko zazpiak.
- Bai, salbajada bat da.
- Ez daukate lotsarik.

GARRANTZIRIK EMATEN AL DIOZUE LETRAK EUSKARAZ, INGELESEZ EDO ERDARAZ EGITEARI?

- Ni saiatzen naiz euskaraz egiten, baina mekauen-la-ley, aditz hauekin tio, la llebo mas klara!

- Ba galdetu besterik ez! Hemen gaude ta euskaldun pilo.
- Gehienbat euskaraz dira eta gero ingelesez. Ingeles batua, ingeles bantua.

ETA ZERTAZ HITZ EGITEN DUTE LETREK?

- Rasta melodia, reggae, sensimila, rasta filosofia, Jamaika, rasta-rasta...

KANPOAN KONZERTURIK EMATEKO ASMORIK BA AL DUZUE?

- Bai, gogo.

KONTAKTO TELEFONOA EMANGO DUGU EZTA?

- Bai, telefonoa da: 861535. Eguerdiko 12ak arte 860224ra deitu dezakezue, eta baita gaueko 12etatik aurrera.

USTE DUZUE POSIBLE DELA «SUN SPLASH» (REGGAE FESTA) BAT EGITEA

ZUMAIAN LEKEITION EGITEN DEN BEZALA?

- Horretarako diru asko behar da.
- Eta organizazioa.
- Talde fuera-de-serie bat ekarri beharko litzateke gastuak kubritzeko. Internacional bat.
- Bonba bat.

ETA AUKERATZEKOTAN ZE TALDE EKARRIKO ZENUKETE HONA? EDO ZE TALDEREN TELONERO IZANGO ZINATEKETE?

- *Linton Kwesi Johnson* adibidez.
- *UB40* ekartzen dezu eta dena kubritzen da.
- *Steel Pulse* edo *Alpha Blondy*.
- *Burning Spear*.
- *Linton Kwesi Johnson*.
- Berriz...?

Baratza Bass Band



ONCE

**JOXE
MANUEL**

Kupoiak tailer, etxe eta dendetara eramaten dira.

Tel: 862347-861001



ilargi
kontzertuz eta musikaz blai

ALAI AUZATEGIA, 2 - TLF: 143324



Motxian hi!

Zein: Krux Etxabe
Nola: Kruxito

-GARAI BATEKO GAZTEAK ALA ORAINGOAK?
ALDE EARREKOAK DIRA GAUR EGUNEKOAK. GUK EZ
GENUEN DIBERTITZERIK, DENA DEBEKATUTA ZEGOEN
ETA.

-ZER MODUZKO MUGIMENDUA DABIL KAI ALDEAN?
NAHIKO MUGIMENDU DAGO. EZ DA GARAI BATIAN
BEZELA, MERKANTEAK ETA IBILTZEN ZIRANEAN
IZATEN ZEN MARTXA, BAINA BUENO.

-OLARRUA PATATAKIN ALA TXULETA PIPER
GORRIKIN?

NIK POTAJE PLATERKADA BATEKIN NAHIKUA DET,
GURE GAZTE DENBORAN HORI IZAN GENDUN
FALTAN.

-GAZTETAN KUKAÑAN NAGUSI OMEN ZINEN, GAUR
EGUN IKUSTERA JOATEN AL ZARA?

ORDUN IZATEN ZAN ANBIENTIA EZ DAGO GAUR
EGUNEKOAREKIN KONPARATZERIK. GUK HARTZEN
GENITUN ZARTAK ETA... GIRO HOBIA EGITEN ZAN.

-KONTXAKO BANDERA NOIZ EKARRIKO DUGU BERRIZ
ERE?

ORAIN DABILTZAN HAUEK SEGI EZKEO BELAXE,
GOGOA JARRI EZKEO POSIBLE DUTE.

-ZEINEKIN BILTZEN ZARA GUSTORA?

KOADRILAREKIN. URTIAN PARE BAT BAZKARI
EGITEN DITUGU ETA GAINONTZEKO DENBORA EGUN
HAUEK NOIZ IRITSIKO ZAI EGOTEN GERA.

-BAZKARI EDER BATI LAGUNTZEKO ZERREKIN
BUSTIKO ZENUKE AHOA?

ARDO BELTZAREKIN.

SALEROSKETAK

Mobil-home porsche
ederrarekin saltzen dut.
Errioxako Haro herrian
dago instalatua. Tfnoa.
(943) 791396
Arratsaldez deitu.
(Gregorio)

Macintosh Classic
ordenagailua eta
inpresora salgai.
Tfnoa. (943) 360389

Sonor markako
perkuso bateria bat
salduko nuke. Tfnoa.
861559 (Imanol)
Egurdian deitu.

AGURRAK

Luis eta Mojo ze!!
19 eta 20 urte
Zorionak!!

Vittor hurrengoan abisau
eta ez ibili atzetik gauzak
egiten.
J.D.T.

Pajaro guandikan
krosian kaka in
huaneko usaia dakak
dariola. K.D.T.

Zer dauka 80 urteko
emakume batek titi
artian, 20ko batek ez
daukana? Txilborra!
jajajajajaja (hau gure
feminista maitientzat)

Txoske, orain
Ganbaran bai,
Ganbaran bai...

Bonbi biatzak entxufian
sartu al dituk? Ze osti illia
ez al dek moztu ber?
K.D.T.



Garibaldi, San
Pankrazioak hituan ta
ez San Punk-razioak!

Apix (eta II):Yo a tu lado
no siento las horas que
ban con el tiempo, y me
akuuerdo que llebo en mi
petxo una herida mortal,
yo kontigo no siento el
sonar de la llubja y el
biento porke llebo tu
amor en mi petxo como
un madrigal (Bis).
Gustoa geatu al haiz!!

Kobaxuloko
txorixarrei: Laxte in
berko yu afaya!
Brrrrreeaaaakkkk!!!!

CARLIN

OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORJINALAK; HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453

BIZKOR FOTOKOPIAK



-Enkuaderneketak
-Plastifikatzeak
-Fax publikoa
-Bulegoko materiale

Basadi 1-1, behean - Tlf: 145120



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behean
20750 ZUMAI
Tel. 143310

LARRIALDIAK
-24 orduetan
-Zeure etxean

Tel. mugikorra: 908-775508

ZUMAIAKO III BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA

Baleike Zumaiako herri aldizkariaren hirugarren urteurrenaren aitzakiarekin, komiki lehiaketa honen edizio berri bat antolatu dugu. Bertan, komikigile guztiak parte hartzera gonbidatzeaz gain, bereziki zumaiarrak tentatu nahi ditugu lan pixka bat egitera. Anima zaitezte parte hartzera!

1- Lehiaketan 14 urtetik gorakoek har dezakete parte.

2- Pertsonaiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokienez, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.



3- Marrazkiak txuri-beltzean eginak izango dira, eta luma, errotuladore, pintzel edota boligrafoz egin ahal izango dira.

4- Lanak bakarka edota talde lanean egindakoak aurkeztu ahal izango dira. Hori bai, **euskarazko** lanei bakarrik zuzendutako lehiaketa da gurea.

5- Lanak 1997ko uztailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, helbide honetara bidali edota bertan utziz:

FORONDA KULTUR ETXEA
20750 ZUMAI

Aurkezpena bi sobretan egingo da. Handian lana sartuko da, azalean **"ZUMAIAKO III BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA"** eta lanaren izenburua jarriko dira. Sobre txikiaren azalean lanaren izenburua jarri eta barruan datu pertsonalak sartu beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai. Ez lanean ez sobreetan ezingo da egilearen nortasuna adieraz lezakeen izenik jarri.

6- Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuaren erdi aldera emango dute aditzera beren erabakia.

7- Epaimahaikideen iritziz lanek gutxieneko kalitaterik ez balute, sariak eman gabe gera litezke. Bestalde, originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da baztertzeko.

8- Honako sari hauek ezarri dira:

1. saria.....	25.000 pta
2. saria	15.000 pta
Zumaiar onenarentzat	15.000 pta

9- Saritutako lanak Baleikeren jabegopean geldituko dira, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.

10- Saritu gabeko lanak Forondan egongo dira lehiakideen esku, epaia eman eta hilabeteko epean. Jasotzen ez diren lanak Baleikeren jabegopean geratuko dira.

11- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, eta zalantzazko kasuak antolatzaileen iritzira argituko dira.

KOSTA GAS



ZERBITZU OFIZIALA

Etxezarreta, 6
ZUMAIA

Tel. 86 10 78

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

- Butano
- Propano
- Gas Naturala



Lehiaketa Goxoa



Aurreko
hilabeteko
irabazleak
JOSEBA eta
MARTIN
AMILIBIA
izan ziren,
gure
guardasol

partikularra Igor Uranga "Mofli"
zela ederki asmatu baitzuten.
Zorionak !!!

**Zein da barrako
eskulturen
egilearen
izena?**

Asmatzen duzuenon
artean **TXAPARTEGI**
GOZOTEGIAk emandako
tarta zoragarri bat zozketatuko dugu. Parte
hartzeko nahikoa duzu erantzuna Txapartegin
bertan edota gure buzoian uztea ekainaren 20a
baino lehen. Zorte on!

